




FEMINISMOA, EKOLOGIA ETA DESAZKUNDEA

LOGIKA BERRIAK ETA JAKINTZA BERRIAK,
GIZARTE-EREDU BERRIAK SORTZEKO.



TAILER BAT/HITZALDIA 3 EKITALDITAN

Sektorean heldutasun-garai baterantz goaz. Gure nortasuna gehiago ari gara ezagutzen, baita gure ekarpen soziala ere, aitorpena jasotzen dugu, eta gaitasun gehiago dugu eragin sozialak sortzeko. Horrez gain, heltze-prozesuan jabetzen gara askotan gure zereginaren egunerokotasunarekin lotutako kontraesanak kudeatu beharko ditugula.

Gure kontraesanak kudeatzeaz harago, jabetzen gara **sektore gisa aurrean dugun erronka handienetako bat dela gero eta gaitasun handiagoa izatea, nagusi den gizarte-ereduari alternatibak eraikitzeko.** Bide horretan eman beharreko lehen urratsetako bat izango da gure esku-hartzeetatik eta gu garen erakundeen eraikuntzatik bertatik artikulatzen ditugun proposamenek islatzen duten gizarte-ereduez jabetzea. Hortik aurrera, funtsezkoa izango da nahi ditugun eta eraikitzeko beharra ikusten dugun helburu horietara begira jartzea. Helburu bidezkoak, askotarikoak eta irekiak, pertsona guztien artean eta guztientzat eraikitakoak.

Hori da aurkezten dizuegun proposamenaren zentzua. Ikuspegi bikoitza: alde batetik, murgilduta gauden prozesu jakin batzuek dakarzkiguten **beharrezko oreka eta kontraesanei buruz hausnarketa egitea**, eta bestetik, **gure nortasun eta jardunbideen bidez gizarte-eredu alternatiboa eraikitzen aurrera egitea**, bai erakundeen barrurantz (barneko bizitza, artikulazioa...), bai kanporantz (esku-hartzea).

Hausnarketa autokritiko hori egiten lagunduko diguten ekarpen desberdinak **topatzeko, nagusi den gizarte-ereduarekiko alternatiboak diren proposamenak aukeratu ditugu**, elkarri oso lotuta daudenak (**feminismoaren ahotsa, ekologiaren ahotsa eta desazkundearen ahotsa**). Uste dugu haien begirada gertukoak lagun diezagukeela sektorearen garapenean prozesu nagusiak identifikatzen, gaur egun Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetan dauden logikak eta jakintzak identifikatzen (eskaintzen dituzten ekarpenetatik eta sortzen dituzten kontraesanetatik), baita haien ekarpenetatik sar ditzakegun jardunbide egoki eta berriak identifikatzen ere.

HELBURUAK

- **Sektorearen hausnarketa (auto)kritikoa egitea gertuko begiradetatik (feminismoa, desazkundera eta ekologia), hirugarren sektore sozialaren ekarpenaren inguruan, sektorearen beraren balioekin koherentziaren, azken urteetan eraldaketa sozialeko prozesuetan izan duen rola eta nagusi den gizarte-ereduaren diskurtso arloko alternatibak nahiz alternatiba praktikoak eraikitzearen inguruan.**
- **Arreta erakundeetan, garatzen duten esku-hartzean eta erakundearen euren barne-bizitzan jarrita (egiturak, balioak, koherentzia, gizarte-partaidetza artikulatzea...)**
- Logika eta jakintza berriekin koherenteak diren erakundeetako praktikan errealitate izaten ari diren **proposamen zehatzak eta alternatiboak bilatuz.**



SILVIA NAVARRO

Gizarte Ekintzaren eremuan garatu du ibilbide profesionala, batez ere Tokiko Administrazioan eta gertutasuneko Gizarte Ongizatearen politiketan, zenbait roletan eta funtziotan. Gizarte Ekintzako zuzendari teknikoa Bartzelonako udalean, Ekintza Teknikoari Laguntzeko eta Planifikazio Saileko arduraduna, Lurralde Ekintzako diziplina anitzeko talde bateko arduraduna eta oinarriko gizarte-langilea Badalonako Udalean. Curriculum zabala du irakasle gisa zenbait unibertsitatetan, eta argitalpen ugari ditu, haien artean nabarmentzen dugu "SABER FEMENINO, VIDA Y ACCIÓN SOCIAL" (JAKINTZA FEMENINOA; BIZITZA ETA GIZARTE EKINTZA).

Gaur egun Administrazio Publikoan duen lana "Rayela creActiva" proiektuaren barruan erakundeetako ikaskuntza- eta berrikuntza-prozesuetako bideratzaile gisa egiten duen lanarekin bateratzen du.

Eguna eta ordua

Urriak 25
BOLUNTAKO
EKITALDI ARETOAN
Zabalbide kalea 1, Bilbo
10:00etatik 13:00etara

EGITARAUA

10:00 - 11:15 **SILVIA NAVARRO**. JAKINTZA FEMENINOA, LOGIKA ETA EZAGUTZA BERRIAK HIRUGARREN SEKTORE SOZIALETIK PRAKTIKA ALTERNATIBOAK ERAIKITZEKO.

11:30 ELKARRIZKETA SILVIAREKIN ETA TALDEKO LANA.

13:00 AGURRA ETA AMAIERA.

1 ELKARRIZKETA

VOTES
FOR
WOMEN

2EN ELKARRIZKETA



YAYO HERRERO

FUHEMeko zuzendaria, Antropologia Sozial eta Kulturalean lizentziatua, gizarte-hezitzailea eta Nekazaritzako ingeniari teknikoa, Pedagogiako Ikasketa Aurreratuetakoko diploma. Hamasei urtez proiektu burua eta Ekoizpen, Kalitate eta Arriskuen Kudeaketako arduraduna izan da enpresa multinazional ugaritan.

Azken urteetan, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Fundazio Orokorrean sartutako Ingurumen Informazio eta Ikasketen Zentro Konplutentseko Dibulgazio eta Sareko Ezagutza Arloa koordinatu du. FUHEMeko lanarekin batera, UNEDeko Hezkuntza eta Sistema Konplexuen Masterreko tutorea da, eta gizarte-ekologiarekin eta feminismoarekin lotutako gaiak lantzen ditu.

Día y Hora

AZAROA 8
BOLUNTAKO
EKITALDI ARETOAN
Zabalbide kalea 1, Bilbo
10:00etatik 13:00etara

EGITARAUUA

10:00-11:15 **YAYO HERRERO**. HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ERAKUNDEEI EKARPENAK DESAZKUNDEAREN, FEMINISMOAREN ETA EKOLOGIAREN BEGIRADATIK.

11:30 ELKARRIZKETA YAYOREKIN ETA TALDEKO LANA.

13:00 AGURRA ETA AMAIERA.

MIRADA Y EXPERIENCIAS DESDE DENTRO DEL SECTOR.

JUAN JOSÉ LACASTAK (PLENA INCLUSIÓN)

ETA SEKTOREKO ZENBAIT ERAKUNDEK **ESPERIENTZIEN MAHAI-INGURU**
BATEAN KONTATUKO DIZKIGUTE PORPOSAMENEN EDUKIEKIN
LOTUTAKO PRAKTIKA ALTERNATIBO BATZUK (LASTER EMANGO
DIZUEGU PARTE-HARTZE HORREN INGURUKO BERRI GEHIAGO)



Día y Hora

22 de Noviembre
SALÓN DE ACTOS
DE BOLUNTA
C/ Zabalbide 1, Bilbao
DE 10.00 a 14 h

Gizarte-langilea prestakuntzaz, Hirugarren Sektorean ibilbide profesionala desgaitasunaren inguruko erakundeetan garatu du, federazio bateko gerente gisa eta Plena Inclusión erakunde zuzendari tekniko gisa. Valladolideko Unibertsitateko Erakunde Garapeneko Aholkularitza Masterrean prestatutako aholkularia, aholkularitzan izandako esperientzia Masterrean bertan irakasle-lanekin konbinatu du, unibertsitate ugaritako gradu ondoko beste ikastaro batzuetan aldaketarako gakoak emanez. Horrez gain, etengabe ikasten aritu izan da, arloko kideekin harremanetan zenbait eremutan: Plena Inclusión-eko Aholkularitza Sarea eta Desarrollo Humano y Organizacional erakundea (DHO), beste batzuekin batera sortu zuena..

ZEN ELKARRIZKETA

EGITARAUUA

9:30 - 10:30 **JUAN JOSÉ LACASTA**. HAUSNARKETA ETA AUTOKRITIKA AZKEN HAMARKADA HAUETAKO SEKTOREAREN EKARPENEN INGURUAN

13:00 – 11:45 **ESPERIENTZIEN MAHAI-INGURUA PRAKTIKATIK**.

12:15 ELKARRIZKETA JUAN JOSÉREKIN ETA ESPERIENTZIEN MAHAIAREKIN, ETA TALDEKO LANA AURREKO SAIOETAN JASOTAKOEKIN